

PRENTSA OHARRA

AMURRIOKO UDALAK ABUZTUAREN 12tik 17ra OSPATUKO DIREN HERRIKO JAIEN EGITARAU AURKEZTU DU

- **Ehun jarduera baino gehiago programatu dira gustu eta adin guztietarako: antzerkia, musika, kirola eta herri-ekitaldiak**
- **Barrakek dibertsitate funtzionala errespetatuko duen ordu bat izango dute egunero, 17:30etik 18:30era. Ordu horretan ez da egongo hipersentsibilitate sentsoialetan eragin dezakeen musikarik edo argi indartsurik**

Amurrio, 2023ko uztailaren 27a. Bi aste barru Amurriok herriko jaiari hasiera emango die eta dena prest dago Iguarrakoren etorrerarako. Jaietako sei egun hauek egitarau zabala dute, gustu eta adin guztietako ekintzez betea, herrian giro ona eta gozamena bermatzen dutenak. Abuztuaren 12tik 17ra bitartean, handiek eta txiekiek musika eta kale-antzerki onenaz, kirol-jardueraz, karroza lehiaketa tradizionalaz eta lehiaketa gastronomikoez gozatu ahal izango dute, besteak beste.

Jaiak hasi aurretik, abuztuaren 5ean santuaren jaitsiera egingo da San Roke ermitatik Santa Maria parrokiara. Gainera, abuztuaren 11n, goizean, "Amurrio Hiria" pilota txapelketaren finalak ospatuko dira Udal Pilotalekuan eta hurrek atrakzioez gozatu ahal izango dute 1,5 euroko prezio berezian. Barraka-gune honetan, iaz egin zen bezala, dibertsitate funtzionala duten pertsonen laguntzeko neurri bat hartu da.

Txerra Molinuevo Amurrioko alkateak azaldu duenez, "Udaletik nahi dugu amurriar guztiek jaiak gozatu ahal izatea; horregatik, barrakek aniztasun funtzionala errespetatzen duen ordu bat izango dute egunero, 17: 30etik 18: 30era, eta ez da egongo hipersentsibilitate sentsoialetan eragin dezakeen musikarik edo argi indartsurik".

Musika-emanaldiak funtsezkoak dira jaietako programazioan. Lau Banku, Su Ta Gar eta Disko Festa Remember taldeen kontzertuak abuztuaren 12an; Jamaica Show Orkestra abuztuaren 13an eta Gwaya, Gozategi eta DJ Blessive taldeen kontzertuak abuztuaren 14an. Oxabi erromeria eta Kai Nakai abeslari gasteiztarra izango dira protagonista abuztuaren 15ean eta Rumbo Tijuana taldea eta Akerbeltz erromeria San Roke egunean.

Gainera, udalaren xede den eraldaketa sozialaren ildotik jarraituz, txosna solidario bat jarriko da Juan Urrutia plazan egingo diren kontzertuetan, abuztuaren 12an eta 14an. Txosna solidarioaren bidez bildutako dirua Duchenne Parent Project España (DPPE) elkartearentzat izango da. Elkarte hori Duchenne eta Becker Distrofia Muskularra duten haurren gurasoek sortu eta zuzentzen dute, eta Duchenne eta Beckerreko Distrofia Muskularra sendatzeko edo tratatzeko eta gaixoen eta haien familien bizi-kalitatea hobetzeko lan egiten dute.

Abuztuaren 13an hurrei zuzendutako hainbat jarduera izango dira. Goizean, udal parkean puzgarriak, ludoteka, tailerrak, txirrista freskagarria eta apar festa izango dira eguerdian. Arratsaldean, Iguarrakoa bisitatu ahal izango da udaletxean, dantzaldiak egongo dira Ganeko taldearekin Frontoi kalean eta Kalaka jolasak parkean. Bukatutakoan, Sun eta Rosi magoarekin magia ikuskizun bat programatuta dago Juan Urrutia plazan.

Kale-antzerkia eta herri-jarduerak

Arte eszenikoek, antzerkiak eta dantzak lehentasunezko lekua izango dute jaietako programazioan. 13rako Ramiro Vergazen "White Bottom" kale antzerkia programatu da Urrutia Jauregiko Landaren, elizatik gertu. Abuztuaren 14an Jimena Caballetiren "Mecha" kale antzerkia izango da San Anton plazan.

Abuztuaren 15ean Txirrindularitza Sari Nagusia, LXVIII Aiala Zirkuitua, Arabako Txapelketa eta "Daniel Albizua" Memoriala ospatuko dira. Gainera, perkusio tailerra egingo da udal parkean, Uganda Sticksekin, Ugandaren tribu dantza eta perkusio



ikusbizuna. Ondoren, Aiara Dantza Taldeak euskal dantza erakustaldia egingo du Juan Urrutia plazan.

LVII. Aurreku eta jota lehiaketa eta David Vegaren "Soñando Magia" kale antzerkia Udal Parkean ostiralean, abuztuak 16. Jaieen azken egunerako, Dantza plaza ikuskizuna programatu da Patxi Perezekin Juan Urrutia plazan eta kalejira Diskoibiltariarekin frontoitik.

Herri ekintzek ere protagonismo berezia dute jaietan, abuztuaren 13an XII. Marmitako Gastronomia Lehiaketa eta 14rako odoloste janaldia izango dira San Anton plazan. Abuztuaren 16an kuadrillen karrozen desfilearen txanda izango da eta jaien azken egunerako bi lehiaketa gastronomiko antolatu dira, XXII. Tortilla Lehiaketa eta II. Sukalki Lehiaketa.